

**SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SA-REN MATERIALA PRESTATZEKO ETA BANATZEKO ZERBITZUAK PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA**

**ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA**

Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa SAko Kontratazio Organoak igorri duen dokumentazioa eskatzeko errekerimendua esleitzeko aukeratutako lizitatuileak —GUREAK MARKETING— behar bezala bete ondoren, Kontratazio Organo horrek materiala prestatzeko eta banatzeko zerbitzuen kontratua enpresa horren alde esleitzea erabaki du.

Aurkeztu diren eskaintzak, dagozkien Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako proposamenak baloratzeko irizpideen arabera aztertu eta baloratu ditu Ebaluazio Batzordeak,

Publizitaterik gabeko negoziazio-prozesura 3 enpresa gonbidatu dituzte: GUREAK MARKETING, TRANSPORTES GOITIA eta TXITA.

Azkenik, eta dagokion negoziazio-prozesuaren ondoren, GUREAK MARKETING enpresak aurkeztu du eskaintza ekonomiko abantailatsuen —Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazio-irizpideak kontuan hartuta—, honako prezio unitario / lizitazioko aurrekontuekin eta iraupen-epearekin:

- 17,40 €/ordu + BEZ
- urtebete, eta Kontratazio Organoak urtero gehienez beste urte batez luzatzeko aukerarekin.

Kontratua formalizatuko da jakinarazpen hau jasotzen duen egunetik hasi eta ondorengo hamabost egun balioduneko epean.

Donostia, 2017ko maiatzaren 23a

**DONOSTIA TURISMOA-SAN SEBASTIÁN TURISMO SA-KO ZUZENDARI  
KUDEATZAILEA**



Manuel Narváez Morales